Coop57 Fundazioa
2020 URTEKO TXOSTENA

fundacio@coop57.coop
https://fundacio.coop57.coop/

FUNDACIÓN
FUNDACIÓ
FUNDAZIOA
FUNDACIÓN
coop57

COOP57 FUNDAZIOA 3
Fundazioaren helburuak 3
4 arlo estrategiko 3
Lan egiteko modua 4
2020ko EKINTZAK 5
DESBERDINTASUNEN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEA 6
Gazpacho Gitano kanpaina 6
Lliures proiektua 7
Funts Kooperatiboa 8
Bizihotsa 10
TRANTSIZIO ENERGETIKOA SUSTATZEA 11
Germinador Social 11
LAN-PREKARITATEAREN AURKA BORROKATZEA 12
Hainbat erresistentzia-kutxa laguntzea 12
BARRURA BEGIRA 13
Gobernantza sendotzea 13
Baliabideak erakartzeko estrategia 14
GARDENTASUN EKONOMIKOA 15
2020ko datu ekonomikoak 15
Nola banatu ditugu gastuak? 15
AURRERA BEGIRA 16

COOP57 FUNDAZIOA

Coop57ren zereginetarako tresna paralelo eta osagarri gisa sortu zen Coop57 Fundazioa. Autogestiorako eta ahalduntze kolektiborako gunea da, eraldaketa sozial eta ekonomikorako konplizitate berriak ehundu nahi ditu eta gizarte-mugimenduen eta ekonomia sozial eraldatzailearen zerbitzura dagoen tresna izan.

Fundazioaren helburuak

- Ekonomia kooperatiboa sustatzea, ekonomia sozial eraldatzailean eragile berriak txertatzeko.
- Bete gabeko hutsuneak hautematea eta berrikuntzak proposatzea, erabateko demokrazia politiko, sozial eta ekonomikoa helburu.
- Larrialdiei erantzuna ematea.
- Hausnarketarako eta eztabaidarako espazioa izatea, eta erronkei aurre hartzea, Coop57ko jarduerari dagokionez, zehazki, eta ESEri dagokionez, orokorrean.

4 arlo estrategiko

- **Desberdintasunen eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea**: beharrezkoa da eragile komunitario, emantzipatzaile eta eraldatzaile berriak garatzea, asistentzialan eta desberdintasunak arintzeko ekimenez harago, eta behetik gorantz, eragindako pertsonen parte-hartze zuzena bermatzeko.
- **Lan-prekarietatearen aurka borrokatzea:** beharrezkoa da lan-borroka autonomo eta prekarizatuak laguntzea, eta herri-mugimenduekin konplizitateak aktibatzea, sektore produktibo askotan oinarri-oinarrizko lan- eta sindikatu-eskubideak defendatzeko.
- **Landa-eremua suspertzea:** landa-eremuaren ageriko krisia dela eta, ardatz nagusitzat dugu hauen alde lan egitea: nekazaritza jasangarria, elikagai-burujabetza, ingurumen-justizia eta biodibertsitatea defendatzea.
- **Trantsizio energetikoa bultzatzea:** gehiegikeria ekologikoaren garaiotan, beharrezkoa da trantsizio energetikoa sustatzen duten prozesuak laguntzea, mundu bizigarriago eta jasangarriagoa eraikitzeko irtenbideak eskaintzen baitituzte.

Lan egiteko modua

Fundazioak sarean egiten du lan, Coop57ren oinarri sozialetik bertatik; herri-mugimenduei entzunda, eta lurralde osoan barna eguneroko alternatibak eraikitzeko dituzten ekimenekin lotuta. **Bizitza duina erdigunean jartzea**, elkargune beretik alternatiba sendoak eta solidarioak eraikitzeko: kooperatibismoa, finantza etikoa eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea. Zeharkako printzipio gidari hauek hartzen ditugu oinarri:



2020ko EKINTZAK

Coop57 Fundazioan etapa berri bati ekin diogu 2020 urtean, eta helburu hauek ezarri ditugu:

- Baliabideak lortzeko estrategia indartzea.
- Barne-gobernantzarako eredua eta Fundazioa Kooperatibaren egituran txertatzeko lana indartzea.
- Orain arte egindako zenbait ekintzari eutsi eta hobetzea.
- Zenbait ekintza-alor proiektatzen hastea.

Erronkaz beteriko urtea izan da Fundazioarentzat, urratsak eman ditugu indartze eta zabaltzean aurrera egiteko eta, nola ez, Covid-19 pandemiak eragindako **krisi sozioekonomiko eta sanitarioaren testuingurura egokitu gara**. Horretarako, lehentasuna eman diegu "Gizarte-bazterketa eta lan-prekarietatearen aurka borrokatzea" ildoei.

Eragile kooperatiboekin eta oinarrizko taldeekin elkarlanean, Kataluniako, Euskal Herriko eta Andaluziako ESEko hogeita hamar bat entitate eta sarerekin egin ditugu aliantzak 2020an. Aliantza historiak berreskuratu dira ¯Òmnium Cultural, ECAS eta Som Energía, adibidez¯ eta berriak eraiki.

2020an egindakoa ez litzateke posible izango mugimendu sozialekin eta ekonomia sozial eraldatzailearekin sarean lan egin gabe.

DESBERDINTASUNEN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKA BORROKATZEA

Gazpacho Gitano kanpaina

Ekimen hau **Asociación Cultural Gitana Vencedoresek** sortu zuen, ijito-herriaren balioak eta ekonomia sozial eraldatzailearenak uztartuta. Helburua zen Sevillako Polígono Sur auzoan sukalde industrial bat eraiki eta egokitzeko dirua biltzea. Kanpainak 425 lagunen ekarpenak jaso zituen. Gaur Sukalde komunitarioa martxan da dagoeneko, 70 etxetarako otorduak prestatzen dituzte, betiere elikagaien kalitateari erreparatuta eta bertako produktuak erabilita. Osagai nagusiak ditu horizontaltasuna, ahalduntzea eta elkarren laguntza.

Kooperatibismoaren alde eta gizarte-bazterketaren aurka bultzatutako proiektu honek erakusten du ekimen alternatiboak eta ahalduntzaileak behetik eta ezkerretik eraiki daitezkeela.

Lliures proiektua

Coop57 Fundazioak, Omnium Culturalek eta Ecas-ek (Entitats Catalanes d'Acció Social) elkarrekin sustatutako proiektua da. Lliures proiektua errotu eta indartzeko fasean zegoen 2020an, eta aparteko emaitzak eman ditu. 5.280 dohaintza baino gehiago jaso ditu (2.610 dohaintza aldizkakoak izan dira eta 501 emailek errepikatu egin dute). Guztira, 282.401,09 euro bildu dira, eta horietatik 190.800,00 euro[1] **13 proiektu komunitariotara bideratu dira**. Bi fasetan egin da hori; otsailean 2019ko lau proiekturen sendotze-fasea bultzatu zen (40.000 euro) eta azaroan bederatzi proiektu berri lagundu, 150.000 euro guztira. 2021 urtera begira, Lliures proiektuak badu sendotasuna, 92.000 euroko soberakina baitu proiektu berrietarako, 50.000 euroko funts propioa eta, aurreikuspenen arabera, 104.000 euro jasoko ditu 2021ean zehar dohaintza errepikakorren bidez.

Lliures proiektuak diruz lagundu ditu honako proiektu hauek:

2019an lagundutako proiektuak indartzeko: Lola No Estás Sola (15.000€), Ateneu Coma Cros (10.000€), Asociación Mujeres Pa'Lante (7.500€), Escudella Solidària (7.500€).

Covid-19 krisiaren ondoriozko kanpaina: La Troca (15.000€), Asociación Mujeres Migrantes Diversas (18.000€), Sindicato popular de vendedores Ambulantes (19.800€), Entre Tots (18.500€), Mensakas SCCL (10.500€), Món Banyoles (18.000€), Ser Barri SCCL (18.000€), Xarxa Suport Mutu (15.000€), Sostre Cívic SCCL (18.000€).

[1]Baliabide horien zati bat 2021ean ordainduko da

Larrialdi sozial eta sanitariorako Funts Kooperatiboa

Funts hori aktibatu dugu **Kataluniako Ekonomia Sozial Eraldatzaileko hainbat erakunderekin batera**[2] Covid-19 pandemiak eragindako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoari aurre egiteko.

Goteo Plataformaren bidez eta Coop57 Fundazioak kudeatutako diru-bilketa kanpainari esker, guztira 95.096,26 euro bildu dira, eta horietatik 75.320 euro **43 ekimenetara** bideratu. Horietatik **41** larrialdi soziosanitarioko oinarrizko beharrei erantzuteko izan dira, eta bi ehun kooperatiboaren sendotasun finantzarioari laguntzeko[3].

Funts horren bidez diruz lagundu dira honako proiektu hauek:

Elikagaiak hornitzea (% 45): Arran de Terra SCCL (2.000€), SúperCoopera-Asociación L'Escaig (1.500€), Terrassa sense murs- Asociación Teler cooperatiu (3.000 €), El Brot SCCL (2.000€), Fleca L'Aresta SCCL (3.850€), MengemBages- Frescoop SCCL (2.000€), Fundación Espigoladors (1.500€), La Kuadrilla ESS (1.500€), Asociación Granollers Pedala (2.000€), Mensakas SCCL (2.000€), Mujeres Pa'lante SCCL (2.000€), Serveis amb cor SCCL (1.500€), Xarxa suport mutu Poble-Sec- Cooperasec (1.250€), Xarxa Suport mutu Alt Empordà-Asociación Ranura (1.200€), Compras antirracistas- Asociación. Social Project 4.0 (1.500€), Trèvol missatgers SCCL (1.000€), L'Enllaç de l'Ebre, SCCL (1.250€), Esguard, SCCL (1.000€), Asociación. Punt de Referencia (1.500€), Alencoop- Asociació MigrESS (800€), Ninkasi SCCL (1.000€), Nau del Gorg (800€).

[2]Sustatzaileak: Coop57 Fundazioa, Goteo Fundazioa, Kataluniako Lan Kooperatiben Federazioa, Coop57 kooperatiba, Roca Galès Fundazioa, Xarxa d'Economia Solidària, Fiare Banca Ètica, Xarxa d'Ateneus Cooperatius (XAC), Opcions de Consum Responsable, FETS, Grup Ecos, Teler Cooperatiu de Sabadell, XES Garrotxa, Coòpolis, Ateneu Cooperatiu de Barcelona, L'Apòstrof, La Pera, Ateneu Cooperatiu de les Terres Gironines, Ateneu Cooperatiu del Vallés Occidental, Ateneu Cooperatiu del Vallés Oriental

[3]Fase honetako gainerako **10** entitateei 2021ean ordainduko zaie.

Babesteko materiala (% 19): Asociación Solidança (2.070€), (Xarxa de Makers del Camp de Tarragona (1.532,1), Diomcoop SCCL (3.000€), Fundación Privada Terrassenca -Prodis (2.000€), Keras Buti SCCL (2.000€), Arreglos y Confecciones Kahur-La Fundició, SCCL(2.000€), Cotó Roig (1.500 €), MIAS Disseny SC (1.500€), Sindicato Popular de Vendedores Ambulantes de Barcelona (3.500 €).

Zaintza-lanak (% 11): Asociación Mujeres Migrantes Diversas (2.000 €), Asociación Dunia Kato (3.500 €), Red de cuidados Antiracista) TICTAC SCCL (1.500), Cuidem Lluçanès, SCCL (2.000€), Sindihogar (2.000 €), Arcàdia Can Batlló (1.200€), Cos Cooperació i Salut, SCCL. (1.000 €), Asociación Alba (1.500 €).

Informazioa jasotzeko aukera eta herri-hezkuntza (% 4): Collectiva't SCCL (2.400 €), Aula d'Idiomes SCCL (1.300 €).

Sendotasun finantzarioa (% 21): Cooperativa Tres Cadires (3.000€), L'Esberla SCCL (1.000€).

Bizihotsa Erresistentzia-kutxa

Erresistentzia-kutxa hau aktibatu dugu, **talde feminista, antiarrazista, antikapitalistekin, Euskal Herriko sare kooperatiboekin (Olatukoop), sindikatuekin eta herritar sareekin batera.** Helburua izan da Covid-19ak eragindako osasun krisitik eratorritako berehalako beharrei aurre egitea.

Jasotako dirua **15 kolektibori** banatu zaie. Kolektibook lan egiten dute familia migratzaile eta ijitoekin, etxe-langileekin eta zaintza-lanak egiten dituzten pertsonekin, saltzaile ibiltariekin eta, kasu batzuetan, kalean bizi diren pertsonekin. Bizihotsa kutxari esker, eskola-adineko neska-mutilek dituzten elikagai-, etxebizitza- eta hezkuntza-beharrizan oinarrizkoenei erantzun zaie.

Erresistentzia-kutxa horri esker, honako proiektu hauek diruz lagundu dira:

Asociación de Mujeres Gitanas de Euskadi (7.500€), Asociación Mujeres con Voz (6.500€), Koopsf34 (1.500€), Firekutzen (2.000€), Novisi Elkartea (4.000€), Asociación Marwa (3.000€), Asociación Mujeres en La Diversidad (2.000€), Ahizapatasuna (1.500€), Grupo Folclórico Chile Lindo (1.000€), Asociación de Residentes Afroamericanos (6.000€), asociación Agharas (3.800€), Malen Etxea (6.500€), Novisi Elkartea (3.500€), Bidaya (1800€), Cooperativa Koop (2.500€).

Germinador Social

Som Energiak eta **Coop57 Fundazioak** konpromisoa hartu dute eredu energetiko eta soziala eraldatzen elkarrekin aritzeko. Hori dela eta, interkooperazioari esker, Germinador Social ekimena sustatzen dugu, gizarte-eredu berritzaileak sortzea bultzatzeko eta trantsizio energetikorako tokiko eragile berriak sustatzeko. Testuingurua gorabehera, lehiaketaren 4. edizioa 2020an egitea erabaki da, eta deialdiak jasotako erantzuna, pandemia bete-betean, oso inspiratzailea izan da: guztira **27 proiektu aurkeztu eta 25 hautatu dira.**

Saritutako proiektuak

Tokiko Energia-Komunitateak, Sari Berezia:

- 1. saria. - Comunidad Energética de Monachil, CooperaSE, (5.000 €)
- 2. saria. - Torreblanca Ilumina, Grup Motor Torreblanca Ilumina (3.000 €)
- 3. saria. - Agés: Común es el sol y el viento, Agés-eko auzo-ekartea (2.000 €)

Pobrezia energetikoa, Saria

- RADAR-Vallecas, Socaire Elkartea (5.000 €)

Trantsizio energetikoa, Saria

- Watteco, Watteco kooperatiba (5.000 €)
- Sinergetik, Arqbag kooperatiba (5.000 €)

Herri Bozketa Saria, pasa den uztailean:

- Autoconsumo en Bicicleta, Energia Gara Nafarroa Tokiko Taldea (5.000€)

Publikoaren Saria, epaimahaiak erabaki du herri-bozketaren bigarren proiektu bozkatuena saritzea:

- Ahorro Energético en el Hogar, Provivenda Elkartea, (gauzazkoan jasotako 1.500€ Opcions kooperatibaren bidez jaso dira)
-

Hainbat erresistentzia-kutxa laguntzea

Lan-Borroka Herrikoien Funtsa, "Revuelta de las Escalas" deritzonaren ondotik, Coop57 Fundazioak 2.000 euroko ekarpen solidarioak egin ditu hainbat erresistentzia-kutxetan, Covid-19k eragindako krisiaren ondorioz sortutakoetan.

Ekarpenak egitean berdintasunezko banaketa hartu da oinarri, eta lau ekimen autogestionaturi lagundu zaie. Ekimenok elkarren laguntzatik eta antolaketa komunitariotik sortu dira, krisi honek aurretik eta ondoren zigortu dituen sektore sozialetatik.

- Asociación popular de vendedores ambulantes
- Asociación Mujeres Diversas Migrantes
- Otras sindikatua
- Did L3onf-Contra la violencia.

Gobernantza sendotzea

Coop57 Fundazioa demokratikoa eta parte-hartzailea da, Coop57ren Batzar Nagusian izendatutako Patronatuak zuzentzen du eta erabaki guztietan kooperatibako gobernu-organoetako kideek parte hartzen dute.

Coop57ren demokraziaren eta parte-hartzearen printzipioak gure egiten ditugu. Coop57ren Batzar Nagusian balioztatzen dira, urtero, Plangintza, aurrekontua eta, baita ere, Coop57 Fundazioko Patronatuko kideen hautaketa.

Gobernantza sendotzea izan da 2020an energia gehien jarri dugun ekintzetako bat. Talde-lanaren ondorioz, Fundazioaren Patronatua berritu ahal izan dugu, elkarrizketaren bidez, eta osaera zabala izan du (16 pertsona). Gainera, bermatu dugu Coop57 Kooperatibako lurralde-sail bakoitzeko ordezkari batek

Baliabideak erakartzeko estrategia

Fundazioaren proiekzioa eta egonkortasuna bermatzeko, funtsezkoa da baliabideak lortzeko gure estrategia sendotzea. Hori dela eta, beharrezkoa da Fundazioaren jarduera eraldatzailean konfiantza duten pertsonak edota entitateak aurkitzea. Epe ertainean Fundazioaren helburu nagusietako bat izaten jarraituko du estrategia horrek.

2020an, Fundazioaren dohaintza-emaileen oinarria handituz joan gara pixkanaka, hein handi batean, urtearen amaieran egindako komunikazio-kanpainari esker; 32 emaile izatetik **184 emaile** izatera igaro gara. Horietatik % 58 emaile egonkorrak dira (aldizkako eta urteko dohaintzak egiten dituzte), eta % 42 emaile puntualak dira. 184 pertsona horietatik % 92 Coop57koak dira.
2020an **8 entitatek** gure lanarekiko konfiantza erakutsi eta emaile gisa batu dira: Tavora Teatro Abierto Sociedad Cooperativa Andaluza, Norai Sccl, Associació Prohabitatge, Col·lectiu Ronda Sccl, Autonomía Sur, Looky Produccions Sccl, Propaganda Pel Fet, Aholkukoop Koop.

Estrategia horrek lotura estua du **komunikazio-estrategiarekin**. Ildo horretatik, honako hauek azpimarratu nahi ditugu: Coop57 Fundazioaren webgunea berritu da (katalanez, gaztelaniaz, galegoz eta euskaraz).

GARDENTASUN EKONOMIKOA

2020ko datu ekonomikoak

2020. urteko diru-sarrerak, guztira, **409.519,62** euro izan dira, eta % 100 dohaintza kapilarrak dira, autogestionatuak eta berezko diru-sarrerak.

DIRU-SARRERAK	
Fundazioaren jarduera	8.645,44 €
Ekitaldiko diru-sarretara transferitutako dohaintzak	400.874,18 €
GASTUAK	
Pertsonala	24.953,33 €
Kanpo zerbitzuak	24.975,40 €
Entitate eta proiektuentzako laguntzak	342.287,15 €
Ibilgetuaren amortizazioa	4.066,42 €
Ekitaldiaren emaitza	**13.237,32 €**

Nola banatu ditugu gastuak?

2020an, guztira, 342.287,15 euro eman dira entitate eta proiektuak laguntzeko 76 ekimenetara, % 78 Covid-19k eragindako krisiari aurre egiteko kanpainetara bideratu da.

Entitateak eta kanpainak:
Lliures proiektua 177.035,00 €
Funts Kooperatiboaren Kanpaina 77.152,15€
BiziHotsa kanpaina 53.100,00 €
Asociación CG Vencedores 35.000,00 €



AURRERA BEGIRA

2021era begira, beharrezkoa da Coop57 Fundaziorako aldizkako dohaintzen oinarri egonkorra indartzea. Oinarri egonkor horrek beharrezko baldintza sendoak ahalbidetuko lituzke aliantzak sortzen eta proiektu kolektiboen zerbitzura ateak irekitzen jarraitzeko. Oinarritik sortutako ekimenak laguntzeko, eraldaketa soziala ahalbidetzen ari direnak.
Ildo horretatik, fundazioa sendotzeko beharrezkoa izango da guztion indarra: Coop57 osatzen dugun pertsona eta entitate guztiona.

“Kooperatzea kapitalismo menderatzailearen iturburuak lehortzea da"

Micaela Chalmeta, feminismo kooperatiboaren aitzindaria.